



EBAZPENA, 2016ko urriaren 31koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, 2016-2017 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasleak, fisikoki, psikikoki edo sentsorialki elbarrituta daudenak, garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasleak, fisikoki, psikikoki edo sentsorialki elbarrituta daudenak, garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deia egiten da, eta aplikatu beharreko irizpideak arautzen dira.

Bukatu da eskabideak aurkezteko epea eta horiek aztertu eta gero 2016ko ekainaren 7ko Aginduak ezarritakoari jarraituz, Balorazio Batzordeak proposatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2016-2017 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasleak, fisikoki, psikikoki edo sentsorialki elbarrituta daudenak, garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deia egiten duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko ekainaren 7ko Aginduko baldintzak bete dituzten ikasleei banan-banako laguntza ematea.

Deialdi horren babesean emandako zenbatekoa, guztira, 2.449.499,98 euro dira, eta ondoren zehazten den bezala banatu da:

Araba: 210.740,64 euro.

Bizkaia: 1.443.679,83 euro.

Gipuzkoa: 795.079,51 euro.

Bigarrena.– Ebazpen hau argitara ematea <https://euskadi.eus> web orriaren iragarki-taula elektronikoan, bertan onuradunak eta zenbatekoak adieraziz, baita baztertutako eskaeren zerrenda ere, zergatia adieraziz. Era berean, ikastetxeetako zuzendarietara Ebazpen honen berri emango zaie, baldin eta ikastetxe horretan eskolatuta dagoen deialdi honetan parte hartu duen ikaslerik.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daskioke Hezkuntzako sailburuordeari, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 31.

Hezkuntza Berriztatze zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.